

➤ **Mintzamenaren grabazioa entzutea**

Mezu elektronikoa bidali behar duzu [j-uskola@ivap.eus](mailto:j-uskola@ivap.eus) helbidera, zure datuak eta telefonozenbakia jarrita. Mintzamen-saioak bikoteka grabatzen direnez, ezin izango dizugu kopiarik bidali. Beraz, IVAPeke Lakuako egoitzara etorri beharko duzu **urtarrilaren 8an** zure saioa entzutera. Mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu zein ordutan etorri beharko duzun. Mintzamen-proba entzuteko eskaerak egiteko epea **urtarrilaren 2tik 3ra** izango da, biak barne, **ez da onartuko epe horren aurretik edo epe horren ostean egindako eskaerarik**.

